



## **Basaburuko Udala**

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)

### **2019KO AZAROAREN 21EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko azaroaren 21ean arratsaldeko 18:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** M<sup>a</sup> Mar Ansorena, Ricardo Arangoa, Xabier Azpiroz, Olatz Dorai eta Santos Etxegia.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** Julen Beunza.

Bertaratu da baita ere Ascensio Indakoetxea Berueteko kontzejuko alkatea.

18:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

#### **GAI ZERRENDA**

##### **1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.**

2019ko urriaren 30eko ohiko batzarreko akta, deialdiarekin batera bidali da eta bildutakoek aho batez onartu dute.

##### **2.- Alkate ebazpenak.**

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

- 2019/138 alkate ebazpena urriaren 24koa Jose Garate Baldari 6 hilabeteko eperako behin behineko aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.
- 2019/139 alkate ebazpena urriaren 25eko Encarnacion Jimenez y Francisco Navarretek 2019ko ekainaren 25eko alkate jakinarazpenaren aurka jarritako helegitearen inguruan Biderka Abokatuak urriaren 25ean egindako alegazio txostena onartu espediente osoa Nafarroako Auzitegi Administratibora helaraziz.

- 2019/140 alkate ebazpena urriaren 29koa baimena emanaz Cristina Gonzalez Ucleri, kultur etxeko areto nagusia erabiltzeko, asteazkenetan 9:30etatik 11:30etara, dantza afrikarren ikastaro bat burutzeko.
- 2019/141 alkate ebazpena urriaren 29koa baimena ematea Marta Huarte Estebanek, egindako eskaerari, kultur etxeko gela haundia erabiltzeko, dantzatonic eta kirol jardueren ikastaro bat burutzeko, astearte, asteazken eta ostegunetan, goizeko 8:30etatik 9:30etara, abenduaren bukaera arte eta asteartetan arratsaldeko 17:30etatik 18:45etara.
- 2019/142 alkate ebazpena urriaren 30ekoa Lizason urriaren 27an izandako eraso sexistaren inguruan Ultzamako Gizarte zerbitzuetako Mankomunitateak urriaren 28an egindako batzarrean onartutako adierazpen instituzionala onartuz.
- 2019/143 alkate ebazpena azaroaren 5ekoa Jose Cruz Biurrarenari obra baimena emanaz, Itsasoko 4 poligonoko 94 lursailean bidea zolatu eta pareta egikaritzeko.
- 2019/144 alkate ebazpena azaroaren 5ekoa onartzea Concerti Navarra enpresak aurkeztutako aurrekontua, 80 euro BEZ kanpoko, Jauntsarasko Oihanzabal eskolako igogailuaren aldizkako ikuskapena egiteko.
- 2019/145 alkate ebazpena azaroaren 5ekoa Miguel Goñi Sarasolari obra baimena emanaz Gartzarongo 6 poligonoko 192 lursailean ur hartunea egikaritzeko.
- 2019/146 alkate ebazpena azaroaren 5ekoa esleitzea Basaburuko Udaleko bigarren solairuko 2. Pisua eskubiren alokairua, Florentxo Ciaurriz Aristeguiari.
- 2019/147 alkate ebazpena azaroaren 5ekoa esleitzea Basaburuko udalarena den farmaziaren gaineko etxebizitza, Juan Alonso Ortizi.
- 2019/148. alkate ebazpena azaroaren 13koa Teofila Azpiroz Garrori 6 hilabeteko eperako behin behineko aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.
- 2019/149 alkate ebazpena azaroaren 13koa baimena emanaz Maite Sanchez Lasterrari Oihanzabal eskolako gela bat erabiltzeko azaroaren 14tik abenduaren 15era 17etatik 18etara ikasteko tekniken tailerra egiteko.
- 2019/150 alkate ebazpena azaroaren 13koa onartuz Elena Alvarez eta Juan Abizcurik egindako eskaera, 2019ko 1. Sei hilabeteko uraren erreziboa berrikusteko, ur zikinen kuota, aurreko lau urteetan epe berean kontsumitutakoaren batz bestekoaren kalkulua eginaz.
- 2019/151 alkate ebazpena azaroaren 13koa baimena emanaz Eneko Miranda Espinosari asteazkenetan 17:45etatik 18:15tara Oihanzabal eskolan bateria ikasteko.
- 2019/152 alkate ebazpena azaroaren 13koa baimena emanaz Izaskun Seminario Andresi asteazkenetan 17:30etatik 18:00etara Oihanzabal eskolan pianoa ikasteko.
- 2019/153 alkate ebazpena azaroaren 15ekoa hasiera batez onartzea 2017/1 Foru Legearen 23. Artikuluaren arabera Dorrea Gaztandegi SA enpresarekin sinatutako hitzarmena, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren 20 egun baliodunez jendaurreko epean egotea.
- 2019/154 alkate ebazpena azaroaren 18koa baimena emanaz Cristina Gonzalez Ucleri, kultur etxeko areto nagusia erabiltzeko, azaroaren 24an, abenduaren 22an, 2020ko otsailaren 2an, martxoaren 1etan, martxoaren 29an, apirilaren 19an, maiatzaren 24an eta ekainaren 28an, 10:30etatik 12:30etara, "Rioabierto sistema" izeneko gorputz adierazpeneko klaseak emateko.

Bildutakoak ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

### **3.- Industriaguneko eremuan obra baimenen etetea.**

Alkateak azaltzen du Dorrea Gaztandegiak ustiapena handitzeko obra baimena tramitatzen ari dela eta obra baimena emateko udalak industrial guneko eremuan obra baimenen etetea altxatu behar duela. Aldiz sustatzailearen aldetik, udalarekin hitzarmen bat sinatu du industrial gunetik kanpo geratu denez bere lursaila, industrial guneak eskaintzen dituen zerbitzuen onuradun izateko dagokion batz bestekoren ordainketa adosteko eta urbanizazioaren gastuaren abalaren %50a jarri behar du eta %10eko ustiapenaren ordainketa egin obra baimena eman baino lehen.

Hau guztia ikusita bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**- Onartzea industrial guneko eremuan obra baimenen etetea altxatzea, 2019ko uztailaren 29an hartutako erabakiaren arabera, Beramendin sustatu den iharduera ekonomikoen gunearen jarduketa eremua osatzen duten S1 unitatea eta honen inguruan babesguneko terrenoaz gain, hauen eremutik haratago 100 metrotara finkatzea jarduketa eremua, Itsasoko errepidea eta NA 411 errepideak muga izanik.**

### **4.-Beramendiko 1. Poligonoko 87. Lursailean gaztandegia haunditzeko obra baimena.**

Aurreko gaiarekin lotuta alkateak aipatzen du obra baimena eman ahal izateko udalak obra baimenen etetea altxatu behar zuela eta sustatzaileak alde batetik udalarekin hitzarmena sinatu, bestetik %10eko ustiapenaren ordainketa egin 5488 eurokoa eta bukatzeko eta Nafar Gobernuko baimenean zehazten zen bezala urbanizazioaren gastuaren %50eko abala aurkeztea udalaren alde. Udal arkitektoak egindako txostenaren arabera eta ikusita urbanizazio gastua 14.771 eurokoa dela sustatzaileak jarri beharreko abala 7.385,88 eurokoa da.

Aipatutako bi lehenengo baldintzak bete ditu baina falta da abala aurkeztea (tramitatzen ari dela adierazi du sustatzaileak). Hortaz hau aurkeztean ez dagoenez arazo urbanistikorik bildutakoek obra baimena alkate ebazpen bidez ematea ahalbidetzen dute. Obra baimenean zehaztuko dira Nafar Gobernuko baimenean finkatzen ziren baldintzak obra egikaritzeko.

### **5.- Ihabengo 3. Poligonoko 34. Lursailerako xehetasun azterlana. Behin betiko onespena.**

Alkateak azaltzen du, aurretik hasierako onespenera eman zitzaiola xehetasun azterlan honi, 2019ko irailaren 4ko batzarrean eta behin betiko onespenerako testu bateratu bat aurkeztua eskatu zitzaion, udal arkitektoaren 14/561 egokituz dokumentazioa. Hau aurkeztua dago eta udal arkitektoak ontzat eman du. Honekin lotuta ere Errepide Legeak eskatzen du 18 metroko distantzietara egokitu behar direla eraikinak eta sustatzaileak lerrokadurak 13 metrotara finkatzen ditu aipatutako lursaileak. Hiru lurra izanik 34. Lursailak Errepide Atalak adierazten du udalari dagokiola baimentzea distantzia horretara egikaritzea etxebizitza. Gai hau hirigintza batzordean aztertu da eta udal arkitektoak ikusita ondoan duen etxearen parean jarriko dela ez du oztoporik ikusi aipatzen duen metrotara egikaritzeko. Hau guztia ikusita bildutakoak aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute;

**-Behin betikoz onartzea Ihabengo 3. Poligonoko 34. Lursailerako xehetasun azterlana, lerrokadurak aldatzeko eta 2002/35 Foru Legearen 76. Artikuluaren arabera argitaratu iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean.**

**- Onartzea xehetasun azterlanean finkatzen diren lerrokadurak eta errepidetik 13 metrotara ahalbidetzea aurreikusten den eraikina egikaritzea, hiri lurra izanik Ihabengo 3. Poligonoko 34. Lursaila.**

**-Jakinarazi akordio hau sustatzaileari.**

## **6.-Moziok.**

Alkateak ondoren irakurtzen den adierazpen instituzionala irakurtzen du:

“Azaroaren 10ean Boliviako Estatu Plurinazionalako Presidente Evo Moralesek bere dimisioa aurkeztu zuen, poliziek eta militarrek behartuta. Dimisioa eman baino lehen Morales presidentearen, bere gobernuko kideen eta Boliviako beste hainbat hautetsien senideen kontrako erasoak eman ziren.

Estatu Kolpe honen ondorioz, egoera benetan larria da eta konfrontazio zibilerako arriskua handia dela azpimarratu nahi dugu, izan ere estatu kolpea bultzatu duten indarrek errepresioarekin erantzuten ari zaizkio Moralesen alde antolatutako herritarrei. Aurreko hilabetean izandako hauteskundetan Evo Moralesek bozen %46 lortu zituela eta hauteskunde horiek errepikatzekeo prestutasuna adierazi duela azpimarratzekoa da ere.

Egoera honen aurrean, Basaburuko Udalak honako **ADIERAZPENAREN INSTITUZIONALA** onartzeko erabakia hartu du:

1.- Gogor salatzen du Bolivian ematen ari den estatu kolpea.

2.- Moralesen kontra altxatu direnei eskubide zibil eta politikoen errespetua eta gatazka negoziazio eta akordioaren bidez konpontzera dei egiten die, eta Estatu Kolpe honen kanpo-bultzatzaileei injerentzia gelditu eta Boliviako soberania errespetatzera deitzen ditu.

3.- Bere babesa adierazi nahi die Evo Morales presidenteari eta El Alton eta Bolivia osoan kolpearen kontra mobilizatzen hasi diren herritarrei.

4.- Herritarrei dei egiten die Estatu kolpe honi aurre egiteko antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzera.”

Bildutakoek aho batez onartzen dute aipatutako adierazpen instituzionala eta sare sozialen bidez zabalduko dute atxikipena.

## **7.- Batzordeen informazioa.**

### **-Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.**

Ihaben eta Berueteko kontzejuek eskatu dute fibra optikoa haien herrietara eramatea eta Arraratsen ez du ezer esan. Proquo empresari eskatuko zaio proiektua egitea hiru herriak sartuz , diru laguntza deialdi bat ateratzen denean prest izateko.

Hurrengo asterako deituko da kontzejuen bilera.

### **- Euskara Batzordea. Olatz Doraik ematen du informazioa.**

Abenduaren 13an Apeztegierrin bertso afaria egingen da Julio Soto eta Maialen Artzalusekin. Izena emateko epea 11ean bukatuko da.

### **-Garapen Batzordea. Ricardo Aranqoak ematen du informazioa.**

Inkestak bildu dira eta 1. sektorearen kudeaketa eramango duen Cedernako teknikari helarazi, Berak datuak sartuko ditu eta batzordean aurkeztuko dira. Ondoren abeltzainekin bilera egin da. 28 inkesta bildu dira eta lan talde bat sortuko da.

### **-Gizarte Politika Batzordea. M<sup>a</sup> Mar Ansorenak ematen du informazioa.**

Batzordea aurreko astean bildu zen pintxo lehiaketa prestatzeko. Basaburuko ostatu guztiak parte hartuko dute Udabeko Benta ezik. Azaroaren azken asteburuan eta abenduko lehendabizikoan buruko da lehiaketa. Abenduaren 1ean Ttipi Ttaupa taldea bilduko da Gartzaron Beunza ibilbidea burutzeko.

## **8.- Informazio orokorra.**

- Nafar Gobernuko Gaztedi eta Kirol Institutoak 3. adineko programetarako dirulaguntza onartzearen jakinarazpean 2019/92E ebazpen bidez onartua. Bi programa aurkeztu dira 3<sup>o</sup> adinekoen yoga eta gimnasia, dirulaguntza 876.60 eurokoa izanen da eta gaixo kronikoen programa 657,44 eirokoarekin.

-NUFK dirulaguntza jaso da, udako langilekin egindako lanen materialaren gasturako, 1984 eurokoa.

- Ultzaman Eraso Sexisten mahai osatu zen eta bertara Basaburuko alkatea bertaratu zen, azken aldian bi eraso sexisten izan dira bailaran eta protokolo orokor bat lantzen

hasiko dira ez bakarrik pestetan aktibatzen dena. Horretarako datuak bilduko dira eta diagnosia egin.

- Azaroaren 25ean Nazioarteko Emakumeen Indarkeriaren Kontrako programazioaren barruan azaroaren 30ean Basaburuan antzerki bat egingen da.

### **9.-Erregu-galderak.**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:10ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.